

PAZIENTEAREN SEGURTASUNA

4. zk. 2022ko Iraila



PAZIENTEAREN SEGURTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Pazientearen Segurtasunaren Nazioarteko Eguna (irailaren 17a) Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) ezarri zuen 2019an, WHA72.6 “Pazientearen segurtasunaren aldeko nazioarteko ekintza” ebazpena emanda.



**Día Mundial de la
Seguridad del Paciente**
17 de septiembre de 2022

Segurtasun gutxiko medikazio-praktikak eta medikazio-akatsak dira asistentzia sanitarioan saihestu daitezkeen kalteen kausa nagusietako bat munduan. Horregatik, alderdi hori kontuan hartuta, **“Medikazioaren segurtasuna”** da aurtengo gaia.

“Medikazioa, kalterik gabe” lemapean

arreta jarri nahi da medikazio-prozesua seguruagoa izan dadin, eta nazioarteko erronkari dagozkion ekintzak bultzatu nahi dira, medikazioaren ondoriozko kalte saihesgarrien 3 kausa nagusiak ardatz hartuta: arrisku handiko medikazioa, trantsizio asistentzialak eta polifarmazia.

Beraz, funtsezkoa da:

- Medikazioarekin eta segurtasun gutxiko praktikekin lotutako kalte-karga handiaren inguruko **kontzientziazio-maila handitzea**.
- **Alderdi guztiak inplikatzeko** medikazio-akatsak prebenitzeko eta kalteak murrizteko ahaleginak egin ditzaten.
- **Pazienteak eta haien familiak ahalduntzea**, medikazioaren erabilera seguruan aktiboki inplika daitezzen.



“Medikazioa, kalterik gabe” nazioarteko erronkaren esparru estrategikoa kontsultatzeko, egin klik irudian.

AINTZATESPEN JARDUNALDIA: SENDAGAIAREN ERABILERA SEGURUA



Osasun Ministerioak, Asistentziaren Kalitatearen Espainiako Elkartearekin lankidetzan, jardunaldi bat antolatu du medikazioaren erabilera **seguruaren alde egiten duten jardunbide seguru**en ezarpena aitortzeko.


Batzordeak aukeratutako 8 praktika onenetatik bi Osakidetzan garatutako programetakoak dira:

- Goierri-Urola Garaiko ESIak **aurkeztutako esku-hartzea, diziiplina anitzekoa eta zeharkakoa, honako hauen erabilera optimizatzeko: IBP, AIEEak, SISADOAS, Whammy hirukoitza eta bentzodiazepinak.**
- **Paziente kronikoaren medikazioaren kontziliazioa eta egokitzapena. Kasu baten kudeaketa, diziiplina anitzeko arreta-zirkuitu baten bidez, Arabako ESIko profesionalek aurkeztuta.**

ZORIONAK!

Gure erakundeetan ezarritako jardunbide egokiak (aurkeztutakoak) eta gainerako erkidegoek bidalitakoak [hemen](#) kontsulta daitezke.

PRESTAKUNTZA-PILUAK



Egin klik irudian prestakuntza-piluletan sartzeko.

Gure erakundeetako mediku, erizain eta farmaziako profesional batzuek, Osakidetzako Lehen Mailako Arretan, Osasun Mentalean eta ospitaleetan dihardutenek, prestakuntza-pilula laburren grabazioan parte hartu dute. **Pilula horien bidez, profesional guztiak sentsibilizatu eta kontzientziarazi nahi dira medikazioa segurtasunez erabiltzearen inguruan.**

Besteak beste, gai hauek hautatu dira: **preskripzio** elektronikoan ohikoenak diren akatsak, **polifarmazia** eta despreskripzioa, medikazioaren **kontziliazioa**, **infusio-ponpa** adimendunen erabilera eta **bentzodiazepinen** preskripzioa.

MEDIKAZIO-AKATSEI BURUZKO ISMP BULETINA

Berriki, ISMPk (Medikamentuen Erabilera Segururako Institutua) **buletin bat argitaratu du, 2021ean jakinarazitako 10 medikazio-akats mota larrienak jasotzen dituen, 2020an argitaratutakoaren antzekoa.**

1	Errores por incorrecta identificación de los pacientes
2	Errores por omisión o retraso de la medicación
3	Errores en pacientes con alergias o efectos adversos conocidos a medicamentos
4	Errores en la conciliación de la medicación en las transiciones asistenciales
5	Errores por la toma de medicación del propio paciente en el hospital
6	Errores en las prescripciones verbales
7	Errores asociados a la falta de utilización de bombas de infusión inteligentes
8	Errores por la administración de dosis elevadas de paracetamol IV en niños
9	Errores por similitud en el nombre o en la apariencia de los medicamentos
10	Administración equivocada por vía IV de medicamentos orales líquidos


Egin klik irudian buletinean sartzeko.

Zoritxarrez, pazienteei kalteak eragin zizkieten akats ohiko gehienak errepikatu egin dira, eta horrek agerian uzten du ez daudela guztiz ezarrita akats horiek saihesteko jardunbide seguruak.

ELGA-REN ARGITALPENEA: MEDIKAMENTUAREN SEGURTASUNAREN EKONOMIA

Pazientearen Segurtasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, ELGak (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) txosten bat argitaratu du, "**Medikamentuaren Segurtasunaren Ekonomia: medikamentuaren segurtasuna hobetzea denbora errealeko ikaskuntza kolektiboaren bidez**".

- ELGAko herrialdeetan izandako 10 ospitalizaziotik 1, gehienez, medikazioarekin lotutako gertakari batek eragin dezake.
- Ospitalizatutako 5 pazientetik 1ek medikazioarekin lotutako gorabeheraren bat du.
- Ospitaleetan medikamentuekin lotutako kalteak 54.000 milioi USD baino gehiago dira ELGAko herrialdeetan.




ELGak argitaratutako pazientearen segurtasunari buruzko txosten hau eta beste batzuk hemen kontsulta daitezke.

Txosten horren arabera, medikamentuekin lotutako kalteetatik harago bideratu behar dira ahaleginak, alegia, **medikamentuen erabilera arrazionalago batera**. Izan ere, paziente guztien ia erdiek beren behar klinikoak asetzen ez dituzten farmakoak jasotzen dituzte (dosifikazio edo iraupen desegokiak, medikazio desegokia oro har, edo farmako desegokiak, esku-hartze alternatibo batek eraginkortasun bera edo are eraginkorragoa izan dezakeenean).

PAZIENTEEN IDENTIFIKAZIOA

Pazientearen identifikazio desegokia osasun-arretako arrisku-egoeren kausa garrantzitsua da, eta ondorio larriak izan ditzaketen akatsak eragin ditzake paziente batengan edo gehiagorengan.


Profesional guztien zeregina da pazientea nor den egiaztatzea, prozesu asistentzialen etapa guztietan.



Osakidetzak, OMEn eta beste erakunde batzuen gomendioekin bat etorriz, hobekuntza-ekintzak abiarazi ditu, akatsak izateko arriskua murrizten lagun dezaketenak:

- Korporazioan identifikazio-eskumuturrekoa ezartzea, baita ama eta jaioberria identifikatzeko kita ere.
- Gailu elektroniko mugikorretarako sarbidea.
- Kartel espezifikoak, arreta ematen zaion paziente/erabiltzailea nor den baieztatzeko beharra gogorarazteko.

Ipar Amerikako ECRI institutuak txosten bat argitaratu du, zeinetan 7.000 identifikazio-akats baino gehiago aztertu eta gomendio eta jardunbide egoki batzuk ematen diren. Txostena hemen kontsulta daiteke.



Pazienteen segurtasuna bermatzeko, zentro sanitarioek aurre egin beharreko erronka handienetako bat infekzioaren aurkako borroka da.

Ingurumena infekzio-iturri potentziala da, hau da, airearen eta uraren bidez infekzioak transmiti daitezke. Arrisku horiek gutxitu edo, hala badagokio, kontrolatzeko, **prebentzio-neurriak** behar dira, batez ere eremu berezietan, pazienteen ezaugarriak eta bertan gauzatzen diren jarduerak kontuan hartuta.

Neurri horien artean daude, besteak beste, **klimatizazio egokia, garbiketa egokia, obra-eremuen isolamendua eta zaintza eta kontrol mikrobiologikoko sistema.**

1999an, "Osakidetzako ospitale-azpiegiturei lotutako arrisku mikrobiologikoak minimizatzeko gomendioak" izeneko lehen eskuliburua argitaratu zen, infekzio nosokomialaren prebentzioan eta kontrolean inplikaturako profesionalen lana errazteko helburuarekin.

Bigarren edizio baten ondoren (2009), eta airearen eta uraren biosegurtasunarekin lotutako alderdien garrantzia eta azken urteotako arau- eta kontzeptu-aldaketak kontuan hartuta, dokumentu hau eguneratzeko lanean ari gara.

ANTIMIKROBIANOEN ERABILERA OPTIMIZATZEA

Antibiotikoekiko erresistenteak diren mikroorganismoek eragindako infekzioen agerpena eta hedapena oso arazo garrantzitsua bihurtu da Osasun Publikorako mundu mailan. Ohiko tratamenduak ez dira eraginkorrak, infekzioek iraun egiten dute eta beste pertsona batzuei transmiti dakizkieke, eta areagotu egiten dira morbiditatea eta osasun-arretaren kostuak.

Antibiotikoekiko erresistentzia handitzen gehien laguntzen duen faktoreetako bat antibiotikoen erabilera desegokia eta bereizi gabea da. Osakidetzaren Pazientearen Segurtasunerako 2020 Estrategiak lan-ildo bat sartu zuen, **Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programak (PROA), Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan Nazionalaren (PRAN)** esparruan. Plan integral horrek giza osasuna, animalien osasuna eta ingurumena hartzen ditu barnean, eta antibiotikoekiko erresistentzia hautatzeko eta hedatzeko arriskua murriztea du helburu, eta, ondorioz, arazo horrek osasunean duen eragina murriztea.



<https://www.resistenciaantibioticos.es/es>

Antibiotikoen erabilera optimizatzerako bideratutako programen garapenaren helburuak hauek dira: osasun-emaizak hobetzea, antibiotikoak erabiltzeari lotutako ondorio kaltegarriak minimizatzea (besteak beste, erresistentziak agertzea eta barreiatzea) eta kostu-eraginkortasuneko tratamenduak bermatzea. Programa horiek euskarri dira prozesu horien diagnostikoan eta tratamenduan esku hartzen duten profesionalentzat, batez ere antibiotikoak preskribatzeari eta emateari eta antibiotikoak behar bezala erabiltzeari dagokienez.

Osakidetzan, **Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programak (PROA)** aspalditik garatzen ari dira zerbitzu-erakunde batzuetan. Erakunde gisa PROA programen garapena bultzatzeko asmoz, adostasun-dokumentu batean lan egin da, PROA programen gutxieneko irizpide batzuk ezartzeko erakunde guztientzat.